

Aurtengo sagar uztako lehenengo muztioa dastatzeko aukera izan zuten astigartarrek

Kronika - Erredakzioa 2023ko ira. 25a, 00:00



Topa herrikoia egin zuten Foru plazan.

Udal ordezkariak eta sagardogileak gidatuta, topa herrikoia egin zuten aurtengo uztako lehenengo muztioarekin.

Sagarra bildu, jo, zanpatu, kirikoketa egin eta muztio berria lortu. Horixe egin zuten atzo, tradizioarekin jarraituz, Astigarragako XXIII. Sagarraren Jaian. Aurtengo sagar uztako lehenengo muztioa dastatu zuten herritarrek, eta zapore bereziki ona hartu zioten gehienek eguerdi sargorian.

Goizean goiztik jarri ziren martxan astigartarrak. Sagardoetxean jarri zuten hitzordua goizeko 10:00etan, eta bertan bildu zuten eguneko protagonista nagusia: sagarra. Familia giroan egin zuen bilketa, eta txikienek erakutsi zuten Astigarragako sagardogileen kateak baduela harrobia. Lanak amaituta, kalejiran egin zuten Sagardoetxetik Foru plazarako bidea, herriko musikarien laguntzarekin.

Alabaina, lanak ez ziren Sagardoetxean amaitu. Urteko lehenengo muztioa lortzea zen helburua, eta horretarako sagarrak jo eta zanpatu zituzten gaztetxoek. Behin sagar guztia ondo txikituta, toiare edier batean sartu, eta bertatik eratorri zuten zukua.

Udal ordezkariak eta sagardogileak gidatuta, topa herrikoiarekin eman zioten ongi etorria lehenengo muztioari, eta herri bazkariarekin borobildu zuten goiza.

Sagar dantzak eta postuek girotu zuten festa

Egin beharreko lanaz gain, ikuskizunez eta gastronomiaz gozatzeko aukera ere izan zen Astigarragan. Postu ugari jarri zituzten herriko sagardogileak, eta sagardo tragoekin batera pintxoak ere jan zituzten bertaratu zirenek. Gainera, barazkiak, gozoak eta bestelako produktuak ere saldu zituzten bertan.

Ikuskizunei dagokienez, aurtengo festan ere ez zen Sagar Dantzarik faltatu. Ikusmin haundia sortu zuen dantzarien jardunak, eta txalo zaparrada ederra jaso zuten ikuskizuna amaitutakoan. Arratsaldean afizionatu mailako pelota partiduak jokatu zituzten Txomiñenen.

Sagar urte oparoa izango da aurtengoa


Sagardoaren Lurraldeak eta Fruitelek sagarraren heldutasunaren txostena aurkeztu dute. Aipatzen dutenez, sagar urte oparoa izango da aurtengoa, sagasti gehienek sagar asko dute, uzta osasuntsua eta ale haundikoa da, eta udarako eguraldia izan da hori ahalbidetu duena. Aurreko urtearekin alderatuta, lehenago heldu da sagarra.

[Gizartea Astigarraga](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez KronikaKide!

Erantzun ▼



Ikusienak



[Ostiraleko XXVIII. Tabernetako Bertsolarien Txapelketan garaile, Iñaki Otxotorena](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 21, 00:00 [Hernani](#)



[Lau pelikula gaur, bailaran](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 21, 00:00 [Astigarraga](#) [Hernani](#)



[Udalak Ave Maria parkeko 'Sormen Gunea'ri buruzko lan saioa antolatu du, urtarrilaren 29rako](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 21, 00:00 [Hernani](#)



[Etxeko ordena mantentzeko saioa, etzi](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 21, 00:00 [Astigarraga](#)



[Goizuetarrek Korrikako lekukoa hartzeko izena emateko aukera izanen dute](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 21, 09:30 [Goizueta](#)



[Etxe berdea' liburuari buruzko solasaldia, etzi](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 21, 00:00 [Hernani](#)



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#) [LEGE OHARRA](#) [PUBLIZITATEA](#) [ARAUAK](#) [HARREMANETARAKO](#) [RSS](#)

 [Gipuzkoako Foru Aldundia](#)  [Hernaniko Udala](#)  [Astigarragako Udala](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#) [AIKOR](#) [AIURRI](#) [ALEA](#) [AMEZTI](#) [ANBOTO](#) [ANTXETA](#) [ATARIA](#) [BALEIKE](#) [BARREN](#) [BEGITU](#)
[DEUSTUALDEA PREST](#) [ERLO TELEBISTA](#) [ERRAN](#) [EUSKALERRIA IRRATIA](#) [GEURIA](#) [GOIENA](#) [GOIERRI TELEBISTA](#) [GUAIXE](#) [HIRUKA](#)
[KARKARA](#) [KRONIKA](#) [MAILOPE](#) [MAXIXATZEN](#) [NOAUA](#) [OIZMENDI TELEBISTA](#) [PLAENTXIA](#) [TXINTXARRI](#) [URIOLA](#) [UZTARRIA](#)

[28 KANALA](#)

[Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)